35 37.

Garralda ✝

37

Garralda

# Introducionea Doctrina Sanduarena.

Cristio fiel gucia
dago anitz obligaturic,
iduquitcera devocio
viotz gucias
gurutce Sanduas
Cristo gure arguia.
Gurutcean nai izanzue il
gu redimitcea gatic
vecatuain cautiveriotic,
eta enemigo gaisstotic.
Eta gorregatic
bearauc acostumbratu
ceinatcera eta santiguatcera;
irures irur gurutce.
Lembicicoa copetan;
libraguitzan gatic Jaingoicoac
pensamendu gaisstoeteic.
Bigarrena agoan;
libraguitzan gatic Jangoicoac
itz gaisstoeteic
Irugarrena bularretan
libraguitzan gatic Jangoicoac
deseo eta obra gaisstoeteic.

Erranes gala gurutce Sanduaren señalea gatic, gure etsayeteic libraguitzazu jauna, gure Jaun eta Jangoicoa. Aitaren icenean, eta Semearenean eta Espiritu Sanduarenean. Amen.

# Credoa.

Tinestacendut Jangoico Aita, gucis poderosoaren, ceruaren eta lurraren criazalea baitan, eta Jesucristo aren seme vacar gure Jauna baitan, cein concebitu vaitce Espiritu Sanducein obras, eta jayoce Maria Virginarenganic, pasaturzue pasio doloroso Poncio Pilato pierzaren eta manuaren azpian, crucificatuzute, iltce eta ortcizute sautsice limboetra, gandic irugarren eguncan resucitatuce ilen artetic, igance ceruetra, eta gandago ssarrivic Aita Eternoaren escuyeco aldean, nondic etorricobaita ilen eta vicien juzgatcera. Tinestacendut Espiritu Sandua baitan, Eliza ama Sandu catolicoan, Sanduaren comunionean, vecatuen varcamenduan; araguiaren resurrecioan vicitce seculacoan. Amen.

---

Articulo fedescoac dira amalaur: lembicico zazpiac pertenecicenzaizguio Jangoicoaren divinidade Sanduari eta verce zazpiac Jesucristo gure Jaunaren humanidade Sanduari, Jangoico eta guizon eguiascoa. Jangoicoaren divinidade Sanduari pertenecicen zaizguionac dira guevec.

Lembicicoa ginestacea Jangoico vacar gucis poderosoaren vaitan.

Bigarrena ginestacea de la Aita.

Irugarrena ginestacea dela Semea.

Laugarrena ginestacea dela Espiritu Sandua.

Borzgarrena ginestacea de la criazalea.
Seigarrena ginestacea dela salvazalea.
Zazpigarrena ginestacea de la glorificazalea.

Jesucristoren humanidade Sanduari pertenecicen zairzgnionac dira guevec.

Lembicicoa ginestacea Jesucristo gure Jauna guizon den bezamvatcs izancela concebitua Espiritu Sanduaren obras.

Bigarrena ginestacea jayocela Santa María Virginarenganic, gueldicancelic Virgen erdibaino len, erdicean eta erdiasqueros.

Yrugarrena ginestacea padecitu eta ilcela, gu vecatarien salvaceagatic.

Laugarrena ginestacea sautsicela limbotra eta gandic atracituela aita Sanduen arimac cein baizaude aren etorce Sanduaren echideten.

Borzgarrena ginestacea gandic irugarren egunean resucitaticela ilen artetic.

Seigarrena ginestacea igancela cerutra, eta gandagola ssarrivic Aita Eternoaren escuyeco aldean.

Zazpigarrena ginestacea etorrico de la ilen eta vicien jiuzgatcera: convenida ssaquitea, onei emeindaela cerrico gloria guardatucituztelacos aren mandamentu Sanduac; eta gaisstoei infernuco seculaco penac guardatu ezituztelacos aren mandamentu Sanduac.

---

Aita gurea.

Aita gurea ceruetan zaudena, santificabedi zure

icena; etorribedi zure erreinua, einbedi zure borondatea, cerúan bezala lurrean ere. Emandezaguzu guri gauren egunorosco oguia, eta barca dauzquiguzu guri gauren zorrac á la nola guc barcatcen baiteuztegu gu zor guituztenei, eta ezguitzala utci tentacioan erorcera, vaya libraguitzazu gaitcetic. Amen.

## Avemaria.

Jangoicoac salvacitzala María gracias betea; Jauna da zurequi; bedeicatua cira zu maztequi guçien artean, eta bedeicatua da zure saveleco fruitua Jesus. Santa María Jangoicoaren Ama, zuc otoiz einzazu gu pecatarien gatic, oray eta gure iltceraco orduan. Amen.

## Salvea.

Jangoicoac Salva citzala Reina, Ama Misericordiarena, vici eta dulzura, esperanza gurea. Jangoicoac Salvacitzala. Zu deitcen citugu Evaren hume destervatuguebec zuri dauzquiguzu suspiras á es eta óyes veteric valle nigarresco gontan. Ea, vada andrea, abogada gurea, zuc itzuli ditzazu gure gana zure vegui misericordioso goyec, eta desterrugoyen ondoan eracutsi dezaguzu Jesus, zure saveleco fruitu bedeicatua urricarioa; ¡O dementisima! ¡O pradosoa! ¡O Ama Virgina dulcea! zuc otoiz einzazu gu gatic Jangoicoaren Ama Sandua, izanguiten digno erdiesteco, Jesucristoren promesac. Amen.

Jangoicoaren legueco mandamentu Sanduac dira amar. Lembicico irurac pertenecicenzaizquio Jangoicoaren honrravi; eta verce zazpiac projimo launein provechuavi.

Lembicicoa Jangoicoa onesi dezagula gauza gucien gainetic.

Bigarrena juramentu banoic ein eztezagula.

Irugarrena sseac santificadizagula.

Laugarrena gauren Aita eta Amac honrva eta respetadizagula.

Borzgarrena yor il eztezagula.

Seigarrena lujuriasco vecatuic ein eztezagula.

Zazpigarrena yori daus evasi eztezagula.

Zortzigarrena yori falsu testimonioic eraguitsi eztezagula, ez gezurric erran.

Bedratcigarrena verceren guizon edo emaztea desea eztezagula.

Amargarrena verceren ontasunic bidegabean desea eztezagula.

Amar mandamentuguevec encevracendira bi-clatva, cervizacea eta orestea Jangoicoa gauza gucien gainetic eta projimo launa gauren buruac verala.

---

## Declaracioa

Doctvina Sanduarena galdeines eta respondatus.

Galdeitendut. Cristio cira?

Respondacendut. Bay jauna, Jangoicoaren gracias.

G. Norengánic dugu Cristio deiceco nombre gau?

R. Cristo gure Jaunaren ganic.
G. Cer naidu erran Cristioac?
R. Cristoren guizona.
G. Cer entendacenduzu Cristoren guizonaren gatic?
R. Jesucristoren fede duen guizona, ceinec recibitu bai-
zue bautismo Sanduan eta dago ofrecituic aren
cervizu Sanduaren daco.
G. Cein da Cristoren señalea?
R. Gurutce Sandua jauna.
G. Ceregatic?
R. Ceregatic baita figura cristo gurucean crucificatu
izancenarena gu redimitcea gatic.
G. Cembat modotra da Cristoren señalea?
R. Bidatra jauna.
G. Cein dira?
R. Bata ceinatcea eta vertcea santiguatcea.
G. Cerda ceinatcea?
R. Escuyeco eri beazas irur guruitcen citea: lembici-
coa copetan; bigarrena agoan: irugarrena bular-
retan, minzatcen guirelec gure Jaun eta Jangoi-
coaregui.
G. Eracitsazu edo mostrazazu nola?
R. Gurutce Sanduaren señalea gatic, gure etsayetcic,
libraguitzazu, gure Jaun eta Jangoicoa.
G. Ceregatic ceinatcen guira copetan?
R. Jangoicoac libraguitzan pensamendu gaisstoetcic.
G. Ceregatic agoan?
R. Jangoicoac libraguitzan iz gaisstoetcic.

G. Ceregatic bularretan?
R. Jangoicoac libraguitzan deseo eta obra gaisstoeteic.
G. Cer da santiguatcea?
R. Escuyeco vi eries gurutce luce vaten eitea, copetatic asi eta cinturareino, cinturatic ezquerreco soineguireino ezquerrecotic escuyecoreino, invocatcen duguleic Trinitate Sandua.
G. Eracutsazu edo mostrazazu nola?
R. Aitaren icenean, eta Semearenean, eta Espiritu Sanduarenean. Amen.
G. Noiz usatubearduguu señale gontas?
R. Astenguiren aldiovo cembait obronen eiten, edo icustenduguleic gauren burruoc cembait necesidade, tentacio edo peligrvoetan, principalgui goacetic seiguicean, echetic atracean, Elizan sarcean, vatean eta lo eiteracoan.
G. Ceregatic ainberce aldis?
R. Ceren dembora eta lecu gucietan gauren etsayac tentacen eta perseguitcen baiguitu.
G. Cer etsay dira guevec?
R. Demonioa, mundua eta araguia.
G. Eta gurutceac vadu virtuteic ayei contra eiteco?
R. Bay jauna.
G. Nondic du gurutceac virtute gori?
R. Jesucristoc vencitu cituelacos gurutcean vere eriotceas.
G. Adoratcen dencan gurutcea cer erratenda?
R. Adoratu eta bedeicanaztazu cristo, ceren zure gurutce Sanduas redimitu vaicindue mundua.

Divisio edo particisa doctrina Sanduarena.

Ycusi dugu cristio cirela cristioaren nombre eta señaleas; eta errandaztazu oray.

G. Cristioa guarmendura ellegatu vecein laster; ¿cembat gauza dago obligatuic ssaguitera?

R. Laur gauza jauna.

G. Cein dira?

R. Ssaguitea cer vearduen ginesi, cer bearduen escatu, cer bearduen obratu, eta cer bearduen recibitu.

G. ¿Nola ssaguinendu cer bearduen ginesi?

R. Daguizguiguleic credo eta articulo fedescoac.

G. ¿Nola ssaguinendu cer bearduen escatu?

R. Daguizguiguleic aita gurea eta berce gaineraco Elizaco oracio guciak.

G. ¿Nola ssaguinendu cer bearduen obratu?

R. Daguizguiguleic Jangoicoaren legueco mandamentu Sanduac, borz Elizacoac, eta obra misericordiascoac.

G. ¿Nola ssaguinendu cer bearduen recibitu?

R. Daguizguiguleic Elizaco Sacramentu Sanduac.

Lembicico parte doctrina Sanduarena ceintan declaratcen baita credoa eta articulo fedescoac.

G. Guacen lembicicora. errantzazu norc erranzue credoa?

R. Apostoloec jauna.

G. Certaco?

R. Guri fede Sanduaren eracusteco.

G. Eta guc ceregatic erratendugu?

R. Confesatceco fede gau Cristioec daucaguna.

G. Cer gauza da fedea?

R. Yausten eztugunein ginestatcea.
G. Yausicindue Iesucristo jayotcen?
R. Ez cauna.
G. Yausicindue iltcen eta cerruetra igaten?
R. Ez cauna.
G. Jinestatcenduzu misterio guevetan?
R. Bay jauna, jinestatcendut.
G. Ceregatic jinestatcenduzu?
R. Ceregatic Jangoico gure Jaunac rebelatu baitu, eta Eliza Ama Sanduac gala eracusten vaitagu.
G. Cer gauza dira dauzguizunac eta ginestatcentuzunac cristio vezala?
R. Eliza Ama Sandu catolico Romanoac ginestatcen eta dauzguienac.
G. Cer gauza dira zuc eta Eliza Ama Sanduac ginesten eta dauzguienac?
R. Dira fedearen articuloac principalgui credoan encerratuic daudenac.
G. Cer gauza dira articulo fedescoac?
R. Dira fedearen misterio principalenac.
G. Certaco dira articulo fedescoac?
R. Emateco noticia distinto eta particularvat gure Jaun eta Jangoicoas eta Cristo gure Redentoreas.
G. Nor da gure Jaun eta Jangoicoa?
R. Da Jaun vat ain escelentea eta admirablea, erran

eta pentsa ezteiquenaz, Jaun bat infinitoqui ona, poderosoa, sabioa, justoa, principio eta fin gauza guciena.

G. Trinitate Sandua nor da?

R. Da Jangoico bera, aita, semea, eta Espiritu Sandua, irur persona distintoac, eta Jangoico vat vacarric eguiascoa.

G. Aita Jangoico da?

R. Bay jauna.

G. Semea Jangoico da?

R. Bay jauna.

G. Espiritu Sandua Jangoico da?

R. Bay jauna.

G. Yrur Jangoico dira?

R. Ez cauna, vaicic Jangoico bat bacarric eguiascoa, igual nola omnipotentebat, Eternobat eta Jaun bat bacarric.

G. Aita Semea da?

R. Ez cauna.

G. Espiritu Sandua Aita edo Semea da?

R. Ez cauna.

G. Ceregatic?

R. Ceregatic personac baitira distinto izaniquere Jangoico bat eguiascoa edo verdaderoa.

G. Beras combat naturaleza, entendimentu, eta borondate dira Jangoicoaren baitan?

R. Naturalezabat bacarric, entendimentubat bacarric, eta

corondate bat bacarric.

G. Eta cembat persona?

R. Irur distintoac cein baitira; aita, semea, eta Espiritu Sandua.

G. Nola da Jangoicoa gucis poderosoa?

R. Ceregatic bere podereaiquin citen baitu naiduen gucia.

G. Nola da criazale?

R. Ceregatic ez dausteic criatu vaitcitue gauza guciac.

G. Eta cer finequi criatu zue Jangoicoac guizona?

R. Jangoicoaren cervizatceco mundu gontan eta ber-cean eternoquin gozatceco.

G. Nola da salvazale?

R. Ceregatic ematenbaitu gracia eta vecatuac barcatcen.

G. Nola da glorificazale?

R. Ceregatic ematenbaitu gloria aren gracian perseve-ratcendireneri.

G. Badu Jangoicoac figura edo gorputcic guc vezala?

R. Jangoico den vezambates ez cauna, ceregatic bai-ta espiritu puro, vaya guizon den vezambates bay jauna.

G. Irur persona divinoetcic cein eintce guizon?

R. Bigarren persona cein baita Semea.

G. Aita eintce guizon?

R. Ez cauna.

G. Espiritu Sandua eintce guizon?

R. Ez cauna.
G. Nor vada?
R. Bacarric Semea, cein guizon cinic deitcenbaita Jesucristo.
G. Beras nor da Jesucristo?
R. Da Jangoico viciaren Seme bacarra cein cinbaitce guizon gu redimitcea gatic eta munduari ejemplo ematea gatic.
G. Eta cembat naturaleza diva Jesucristoren baitan?
R. Bida jauna divinoa eta humanoa.
G. Cembat borondate?
R. Bida jauna divinoa eta humanoa.
G. Cembat entendimentu?
R. Bida jauna divinoa eta humanoa.
G. Eta cembat persona eta memoria?
R. Persona divinobat bacarric, cein baita Trinitateco bigarrena, eta memoria bat humanoa, ceregatic Jangoico verala ezpaitu bearric.
G. Cer naidu erran Jesusec?
R. Salvatzalea.
G. Ceotcic salvatu guinduce?
R. Gauren vecatuetcic eta demonioaren cautiveriotic.
G. Cer naidu erran Cristoc?
R. Ungitua.
G. Certas izantce ungitua?
R. Espiritu Sanduaren gracias eta dones.

G. Cristo gure Jauna nola concebitua eta jayo izantce Ama Virginaren ganic?
R. Obratus Jangoicoac sobrenatural eta milagrosoqui.
G. Ceregatic erratenduzu sobrenatural eta milagrosoqui?
R. Ceregatic Jesucristo ezpaitce izan concebitua eta ez jayoa bertce guizonac verala.
G. Nola izantce vada encarnacioco misterio gura?
R. Espiritu Sanduac artcen zueleic Maria Santisimaren entrañeteic odol chortabat, odol chorta gartas formatu zue gorpuzbat, ez dausteic criatuzue arima bat, arima eta gorpuza elcarregui unituic artucitue Trinitateco bigarren persona divinoac bere gana, gueldIitcenceleic ordudanic Jangoico eta guizon eginic milagrosoqui.
G. Eta nola jaytce milagrosoqui?
R. Jayotcean Maria Santisimaren ganic vatre dañatu eta perjudicatu gabe aren virginidadea, igual nola iduzguiaren erreinura sartcen baita cristale vatetic autsi eta manchatu gabe.
G. Aren ama beti bici izantce Virgen?
R. Bay jauna beti izantce.
G. Ceregatic nai izantzue il gurutcean?
R. Gu betico vecatutic libratcea gatic.
G. Nola vada erorcenguira vecatu gontan?
R. Gure lembicico Aita Adanec vecatu eintzuelacos, ceintan guciec vecatu eiten baitugu.
G. Cer entendatcenduzu infernuas ceintra sautsi

vaitce Cristo gure Jauna il ondoan?

R. Ez condenatuen lecuva baicic limboetva justoac ceudenera noren echideten vaitzaude.

G. Bada infernuvat vaino gueyago?

R. Bay jauna; badira laur luvreco centroan, eta deitcen dira, condenatuen infernua, purgatorioa, limbo aurrena, eta limbo justoen edo Abrahanen senoa.

G. Eta cer gauza dira?

R. Condenatuen infernua da lecubat ceintra baitaza vecatu mortalean iltcen direnac izateco gan eternoqui átormentatuac: purgatorioa da lecubat ceintra baitaza arima gracian iltcendirenac ceinec vician satisfatu etcituztelacos enteroqui beren vecatuac, baitaude sufritcen gango tormentuac arrás pagatuartio veren zorrac: aurren limboa, da lecubat nora jaten baitira arima gayec arraciora ellegatu vaino len iltcendirenac bautismoa recibitu gave, eta justoen edo Abrahanen senoa, da lecubat gure redencionea verificatuartio, jaten ciren arima gayec iltcencirenac Jangoicoaren gracian arrás purgatu ondoan ceintra sautsi bartce Jesucristo real eta verdaderoqui.

G. Nola sautsice?

R. Arima unituic divinidade verarequi.

G. Aren gorputza nola guelditüce?

R. Unituic divinidade verarequi.

G. Nola resucitatuce irugarren egunean?

R. Izultcean juntatcera aren gorputza eta arima

gloriosoa, ez berris secula iltcetotan.
G. Nola igance cerruetra?
R. Bere virtute propios.
G. Cer naidu erran gan dagola sarriric Aita Eternoa-
ren escuyeco aldean?
R. Yzatea igual gloria arequi Jangoico den bezamvates,
eta guizon den bezamvates yor gueve baino gueyago.
G. Noiz etorrico da vicien eta ilen juzgatcera?
R. Munduein azquen finean.
G. Eta orduan beaute resucitatu il guciec?
R. Bay jauna, beren gorpuz eta arima propio izan-
tuztenequi.
G. Eta munduein fina baino len iceindira juzgatuac
guizonac?
R. Bay jauna, vicien finean iceindira juzgatuac eta
sentenciatuac Jangoicoas, onac gozatcera Jangoicoas
glorian eternoquz, eta gaisstoac sufritcera infernuco
tormentuac eternoqui.
G. Cer jinestatcendizu erratendeleic Sanduen comu-
nionean?
R. Jinesi vcardugu jauna cristio fiel vatzuc du-
tela parte vertce cristio fielec eitenturten obronetan,
izanic bezala gorpuz bateco miembroac cein baita
Eliza.
G. Nor da Eliza?

R. Da cristio fiel gucien unione edo congregacioa noren buru Aita Sandua baita.
G. ¿Nor da Aita Sandua?
R. San Pedroren lurreco sucesore legitimoa Erromaco Aita Sandua, cristoren vicario lurrean nori gucioc baicaude obligaturic obediencia prestacera.
G. Credo eta articuloes landa jinestacenduzu vertce cembait gauza?
R. Bay jauna, escritura Sanduan dagona, eta vertce gaineraco Jangoicoac Elizari revelatu zazquion guciac.
G. Cer gauza dira guerec?
R. Etzazula nivi gori galdein ceren bainiz ignorante: Eliza ama Sanduac baitu doctoreac respondatuco dauzute.
M. Ongui diozu doctorei tocatcen dela respondatcea, eta ez zuri contu ematea fedesco gauces: zuri asqui zaizu ematea articuloeteic credoan dagon vezala.

---

## Bigarren parte doctrina Sanduarena ceintan declaratcen baita cer bearden escatu, eta Eliza ama Sanduaren oracioac.

Icusi dugu nola daguician, cer bearden ginesi, ceín baita lenbicicoa: goacen bigarrenera ceín baita cer bearden escatu.

G. Errantzazu norc errantzue aita gurea?
R. Jesucristoc.
G. Certaco?
R. Guri oracio eiten eracusteco.
G. Cer gauza da oracio eitea?
R. Jangoicoari viotza goititcea eta merchede eta favoreac escatcea.
G. Cembat maneratra da oracio eitea?
R. Bidatra jauna: gogoscoa eta agoscoa.
G. Ceinda gogoscoa edo mentala?
R. Da eitendena ejercitatus arimein potenciac, oroitcenguirencan memorias gauza on batzuez, pensatcen eta discurritcen duguncan entendimentuei-qui gauza guecetan, eta eiten duguncan borondateaiqui cembait obra on, nola becatuen urricarimentua, edo vertce cembait resolucione, nola confesatceas eta bicis mudatceas.
G. Ceinda agoscoa edo vocala?
R. Da eitenduguna errezatcen duguleic, por ejemplo aita gurea eta vertce gaineraco oracioac.
G. Eta cer modotan ein beardugu oracioa?
R. Atencio, humildade, confianza eta perseverancia andirratequi.
G. Errezatcen duguleic aita gurea norequi minzoguira?
R. Jangoico gure Jaunarequi.
G. Non dago Jangoico gure, Jauna?

R. Leau gucietan, especialgui ceruetan, eta Aldareco Sacramentu Sanduan.
G. Eta cristo guizon den bezamoates non dago?
R. Bacarric ceruan eta Aldareco Sacramentu Sanduan.
G. Oracioetan den obenena ceinda?
R. Aita gurea jauna.
G. Ceregatic?
R. Ceregatic crran baitzuc Cristoc, bere ago preciosoas.
G. Ceregatic gueyago?
R. Ceregatic baitiu zazpi peticione caridadean fundatuac.
G. Cein dira?
R. Lembicicoa da santificavedi zure icena.
G. Cer escatcendugu peticio gontan?
R. Jangoicoaren icen Sandua izan deila ezautua eta honratua mundu gucian.
G. Cein da bigarrena?
R. Etorribedi zure erreinua.
G. Cer escatcendugu peticio gontan?
R. Jangoicoac erreina dezala mundu gontan gure arimetas gracias, eta certcean glorias.
G. Cein da irugarrena?
R. Einbedi zure borondatea ceruan bezala lurrean ere.
G. Cer escatcen dugu peticio gontan?
R. Eindezagula Jangoicoaren borondatea lurrean gau-

denec, nola citen baitute bienaventuratuec cerucan.
G. Cein da laugarrena?
R. Emandezaguzu egunorosco oguia.
G. Cer escatcen dugu peticio gontan?
R. Jangoicoac digula gorputceco alimentu convenientea, eta arimaco espiritutala ceinere baitira gracia, eta Sacramentuac.
G. Cein da bortzgarrena?
R. Barca dauzquiguzu guri gauren zorrac á la nola guc barcatcen baitdiztegu gu zor guituztenei.
G. Cer escatcen dugu peticio gontan?
R. Guri gauren projimo launac citen dauzquigun ofensa eta agravioac guc barcatcen vadeiztegu Jangoicoac guri becatuac barcatuco dauzquigula.
G. Cein da seigarrena?
R. Ezquitzazula utci tentacioan erorcera.
G. Cer escatcen dugu peticio gontan?
R. Jangoicoac ezquitzala utci tentacioan erorcera, ain guti consenticera, pensamendu eta tentacio gaisstoetan ceinec demonioac procuratcen baitu eror guiten vecatuan.
G. Cein da zazpigarrena?
R. Baya libra guitzazu gaitcetic.
G. Cer escatcen dugu peticio gontan?
R. Jangoicoac libraguitzala gaiz gucietaic eta peligro arimaco eta gorputcecoetaic.
G. Ceregatic vada erraten dugu lenic, aita gurea